

Joseba Azkarraga Etxagikela

SOZIOLOGOA, MU-HUHEZIKO IRAKASLEA

## Izan gaitezen egoistak

**G**roucho Marxek zioen zoriontasuna gauza txikietan dagoela: yate txiki bat, txalet txiki bat... Modernoon kontsigna, “zenbat eta gehiago orduan eta hobeto”, umorez jantzi zuen. Kontsigna hori protesi natural bilakatu da mendebaldarron psikologian.

Hazkunde ekonomikoak ei zekartzan ongizatea eta zoriontasuna, baina, behin gutxieneko materialak ase ondoren, baieztapena atzekoz aurrera jarri zaigu: hazkunde ekonomikoa geure nahigabe kronikoan sostengatzen da.

Clive Hamilton ekonomilari australiarak dio politikoez nekez esango dutena: hazkunde, geure arazoen erremedioa barik, geure gaixotasunen iturri da. Kalkuluen arabera, 1995-98 urte bitarteko hazkunde globala 1900az aurretiko hamar mila urtetakoa baino handiagoa izan da. Halere, mamu berria dabil mundu aberatsean barrena: asperra, bakardadea, depresioa.

Ikerketa gehienek diote: gutxieneko materialak eskuratu ostean, norbanakoon bizipoza ez dago ahalmen ekonomikoaren edo arrakasta profesionalaren baitan, ezta ere osasuntsu egotearen baitan. Kontu “ziztrinagoak” omen ahaltsuagoak: kultura abegitsua, elkar laguntzeko sare trinkoak, ondasunak konpartitzeko ohiturak, pertenezia sentimenduak... Ez dirudi egunero dutzatzeak edo plasmako pantailak zoriontsuago egiten gaituenik.

Bizitzaren balantzea egiteko unean konturatzten ei da bat, behin betiko agurraren tenorean,



KARLOS CORBELLA

zauriak miazkatzea besterik geratzen ez denean: aspektu ez-materialak izan dira bizipozerako pasaporteak. Erosi ezin den hori guztia, alegia.

Bizipoza errazago dator materia eta energia gutxiago kontsumituz gero. Ez da erlijio post-materialista berri baten salbaziorako deia. Ez da Parisen entzundako manifestu existentzialista. Ez da Bucay-ren auto-laguntzarako leloa. Zientzia da: hanka bikoak pasta horrekin gaude eginak, serotoninina berdin edo gehiago ekoitzi daiteke gutxiago kontsumituz.

Halere, ahatearenak egiten segitzen dugu. Bitxiak dira paitak: arrautza puskatu eta begiak zeinengan pausatuta, hantxe aurkitzen dute ama, izan paita-ama, azeria, ala hondartzan tanga batekin kakahueteak saltzen dituen gizasemea. Hura nora, paitak hara. Bulkada instintiboen diktadura da, ez dago inpugnazio posiblerik.

Halaxe segitzen diogu, paiten automatismo autosuntsitzailearekin, geure psikean iltzaturik dugun protesi materialistaren aginduari. Bestela esanda: izan gaitezen ekologistagoak ez planeta salbatzearen, ez geure espeziearen etorkizuna ziurtatzearen, ez oraindik jaio ez direnekiko elkartasuna adieraztearen. Hori guztia heroismo ezinezkoa bazaigu, izan gaitezen ekologistagoak egoismo hutsagatik, geure bizipoz indibiduala handitzearen.

Kapitalismoa toxikoa baita, ez soilik ikuspegi sistemikotik, baita ikuspegi psikikotik ere: estruktura emozional gaixoa sostengatzen da. ■

«  
Izan gaitezen ekologistagoak  
egoismo hutsagatik, geure  
bizipoz indibiduala  
handitzearen  
»

## TXANDAN

Juan Ramon Makuso

### Gezurrak



Ez dut gogoko gauza bat sentitu, pentsatu, eta kontrakoa esan. Baina gizakiaren jokabide bat da. Ezin dut ontzat eman geuzakien artean gezurretan aritzea. Baina, tamalez, gure egunerokoa, gauza arrunta bilakatu da. Gezur txikiak onartzetik dator, beharbada, gezurra, kulturala bihurtzea. Gizakiaren beste aurpegia. Antzerkian maskara erabiltzen da. Baina gizakiak, beste gizakiaren aurpegiaren aurrean, bere aurpegia erakutsi behar du. Une hori ez da antzerkia. Bi begiradak. Bi sentimendu, ezin dira bihurtu mila aurpegi. Bizitza, edo behintzat gizakiok eraikitzen

duguna, daukagun erreala bakarra da. Ustezkoa, baina erreala. Ezin ditugu gehiago zaildu gure harremanak, aurrean daukaguna, ustez erreala, eta gainera are fikziozkoagoa bihurtu. Literatura, zinea, fikzioaren erreinuak dira, nahiz eta, eta hau ere kulturala da, askotan pentsatzen dugun errealitateak fikzioa gainditzen duela. Hala balitz, guk egiten dugulako da, beraz, beste artifizio bat. Azken hauteskunde kanpainan, bi politikoen artean eztabaida bat muntatu zuten. Inongo lotsarik gabe, batak besteari gezurti deitu zion. Honek ez zion erantzun bakar bat eman. Gezurra legitimatu zuen. Agian dena gezurra zen. ■